

YON ETXAIDE-ITHARTE.—*Amaiur*. (Drama, hiru ekitalditan). Hirugarren agerraldi hobetua. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala. Donostia, 1983.

Esan beharrik ez dago, merezi duen haina jaramon egin ez badiogu ere, gure euskal literaturan toki berezia merezi duela Etxaidek.

Antzerki hau, lehen aldiz, *Euzko-gogoa* aldizkariaren lehen aldian argitaratu zen, Guatemalako garaian, 1951.ean. Gero, liburu bezala, 1978an birargitaratua izan zen eta hara hemen hirugarrenez, atarian dion bezala: hobetua.

Nafar erresumak bere burujabetza gorde nahirik Fernando Katolikoaren eta Karlos V.aren garaiko historian oinarritzen da, bereziki Amaiur gazteluaren gordetzez izan zen guduan. Gudu hori, gure historian, Nafarroaren erregetzaren galerazko sinbolua bait da, bere erresuma azken indarrak han lertu zituzenez. Liburuaren eskaintzan azaltzen denez, idazlan honi Mikel Orreagaren historia-liburuak eman zion gaia eta haria antzerkia burutzeko. Beraz, baita ere laguntza, argibidea eta aukera. Baina, Etxaidek ez zigun guti egin euskaraz antzerkia errenditzean. Izan ere, bere lanetan, lan ugarietan, sorketarako etorriaren ahalmena ondo erakutsia du Yonek.

Mitxel Jatsu eta Azpilikueta, Xabierko jauna, obraren tartean pertsonaiarik garrantzitsuena dugu. Horregatik, Xabierren bertan hasten da antzerkiaren lehen parte. Bigarren aldia Nafarroako hiriburuan eta hirugarrena Baztango Amaiurren. Gertakari gogorrek direnez, halakoa da obra ere.

Gaia interesgarria baldin bada ere, Yon Etxaideren luma eta ekarria ez dira nolana hikoak. Horregatik uste dugu hirugarren argitalpen hau ere ez dela izango azkena.

*J. San Martín*